



Ihesi

Pirinioetako zeharkaldia

TESTUA: GORKA AZKARATE
ARGAZKIAK: F. J. BELTRÁN DE HEREDIA

Hendaia tik Hiru Erregeen Mahaira (II)

Elizondo-Orbaizeta

Kondaira zahar rak gogoan

Zailtasun handirik gabe osatu genuen Hendaia tik Elizondorainokoa, gorputzeko giharren prestaketa modura. Euskal Herriko gailurrera bidean osatuko dugun bigarren etapak, ordea, geroz eta garaiera handiagoko lepoak igarotzea eskatuko digu, kateko gailur nagusiak hurbilago dauden seinale. Kintoa, Urkiaga, Aldudeak, Orreaga, Urkulu eta amestutako etapa amaiera Orbaizetako ola zaharrean. Gozamenak ez du etenik.


Elizondotik abiatu eta Orbaizetako olara helduko gara hiru zatitan banatu dugun etapa ezin ederragoa osatu eta gero.

Elizondotik Urkiagako mendatera GR-11ko ikur zuri gorriak jarraituz osatuko dugu bidea, gailurren bat edo beste igotzeko baino ez ditugu utziko alde batera arrastoak. Elizondoko elizaren atzealdean hasiko dugu txangoa (200m), Santa Engraziko ermitara doan errepeidea jarraituz. Ermitatik gertu, errepeidea baso pista bilakatuko da, eta, poliki-poliki, metroak irabaziko ditugu igoera ederrean. Bideak atseden hartzeko gonbita luzatuko digu behin baino gehiagotan: giblean Baztan haran zoragarria; parez pare, berriz, Auzatik Urkiagara doan gailurreria, hots, Aldudeak inguratzen dituen mendi multzo paregabea. Mendi pistak marrazten dituen bihurtuneak saihesten dituen xenda bati esker laster helduko gara Bailegiko lepora (605m).

Xendak ez digu atseden handirik emango; tarteka zenbait malda piko gaitunduz, Urballoko lepora helduko gara (900m), Larrabeltzeko Haitzak (970m) eta Alba Haitzaren (1074m)

artean dagoen lepora. Margo ikurrek eskuinetik zeharkatzen dute Alba Haitza, baina ez digu ahalegin handirik eskatuko gailurrera igotzeak. Elizondo atzean utzi dugunetik estreinakoz, Aldudeak begiz jotzeko aukera izango dugu Alba Haitzetik. Sarritan behelainoak erdi estaliriko Aldudeei sorginkeri kutsua darie, gainerakotik aparte dagoen mundu txiki baten aurrean gaudela pentsaraziz. Kintoako basoak estaltzen duen Urkiaga mendatea hautemango dugu, dagoeneko, Alba Haitzetik; Adi erraldoiak ere, desafioa botako digu harro. Behakoa ezkerrera biratuz, berriz, Auza ageri da, eta atzerago, Gorramendi, Gorramakil, Alkurruntz...

Pagadi ederretan barna edo haizeak orrazturiko soiluneak igaroz zenbait igoera eta jaitsiera laburri egin beharko diogu aurre jarraian, harik eta Urkiagako mendatera heldu arte. Aurrera eginenez Kintoako bordara –mahaiaik eta iturria dituen ehiztarien aterpea– iritsi arte, Zaldegiko lepoan. Hortzak estutu eta Argintzuko malda igoko dugu, uren banalerroan dagoen GR-12 ibilbidearekin bat egiteko. Erraza izango da GR-12ko ikurrei jarraiki, Artesiagako



Lasterkaria Urkiagara bidean. Atzean, Adi.

mendatera jaistea nahi izanez gero. Guk, ordea, Urkiaga dugu jomuga. Mila eta ehun metroko langaz goitiko zenbait muino saihestu ondoren, bideak behearazko joera hartzen du

1 Elizondo-Urkiaga

19 km, 1.100 metroko igoera metatua. Hemen proposatzen den ibilbideaz gain, bada beste aukera interesgarriak. Elizondoko Bear-tzun auzotik Belaungo lepora igo, Urepelera jaitsi eta, Linduseko gailurretik igaroz, zuzenean Ibañetara joan gintezke, adibidez.



Ihesi: Euskal Herria ezagutuz

erdiko kaiera

bat batean, Urkiagako mendatearen bila. Denbora gutxiren buruan, Eugi eta Aldudeak batzen dituen errepidearekin egingo dugu topo: Urkiaga (912m). Mendatetik hurbil, hegoaldeko isurialdean, Arga ibaiaren sorleku omen den iturritik edan ahal izango dugu.

Aldudeak eta harago Adi, Baileiko lepotik.



2 Urkiaga-Oreaga

16 km, 1.000 metroko igoera metatua. Sorogaingo harana igaroko dugu. Aterpetxe dotore eta erosoago dago bertan, ostatu hartu nahi duenarentzat.

Urduritasuna sumatuko dugu gailur garrantzitsu bat igo aurretan beti gertatu ohi zaigun bezala; Adi (1457 m) da, arnasa hartzeko ia astirik gabe, igoko dugun menditzarra. Urkiaga mendatetik abiatzen den baso bidetik erraz egingo dugu gorantz Adiko leporaino. Zain dago Adi ia 300 metro gorago. GR-11ko margoak utzi egingo ditugu zehar-bide bat jarraitzen dute eta. Sorogaingo bailarara bidean, Adiren ekialdeko isurialdean topatuko ditugu berriz arrastorak. Belarrezko malda eder bezain gogo-

rra igota Adiko tontorrera helduko gara. Bakandu samarrik egoteak eta, besteen aldean garaiagoa izateak, talaia paregabea bilakatzen dute Kintoako kolosoa: Sorogaingo bailara, Erro harana, Oreagako mendiak (Astobizkar, Ortzanzuriet...), Adartza, Alba Haitza, Auza, Saioa, Zuriain... Malda gogor bat jaitsi eta Sorogain bailaratxoaren atarira helduko gara, Aratungo lepora.

Mendien errailetatik irteten diren errekaak jarraituz, baso bide eder batean barrena, helduko gara Sorogaingo bailaraxora eta GR-11k aterpearen ateraino bertaraino eramango gaitu (850m), Oreagara jarraitu aurretik atsedean hartzeko aukera izango dugularik. Lasaialdiaren ostean bideak gorako joera hartzen du berriz ere, Arbilletako muinorantz. Arbilletan aukera bi izango ditugu aurrera jarraitzeko: GR-11k hegoalderantz jotzen du, beheorantz, zuzenean Auritz herrira iristeko. Hor Oreagatik datorren GR-65eko (Donejakue bidea) gezi horiekin bat egin eta, aurkako norantzan, Oreagara helduko gara hiruzpalau kilometro osatuta. Guk, ordea, gailurreria jarraitzen duen xenda hautatzea proposatzen dugu, Mendiaundi eta Lindus gailurrak igoz eta, baso pista bati jarraiki, Ibañetako gainera iritsiz. Ibañetatik Oreagara bidean

edo Oreagan bertan, erromes ausartekin hiruzpalau hitz elkartrukatzea zirraragarria da. Oreagako kolejiata, 950m.



Donejakue bideko gezi horien peskiz ibiltzen dira erromesak.

AITOR CASADO

3 Oreaga-Orbaizeta

15 km, 700 metroko igoera metatua. Gero ibilitako hiruzpalau kilometro desegun beharko ditugun arren merezi du Orbaizetako olara gerturatzeak.

Kolejiataren atzealdetik abiatzen den baso pista lokaztuari ekingo diogu. Segituan ordeka utzi eta modu erabakiorrean mendian gora abiatzen da.

Kintoa

Aldudeetako haranaren buruan kokatzen den larre eremu hau, jaberik gabeko lurra izan zen mendeetan; bertara igotzen ziren

Baigorri, Erro, Luzaide, Aezkoa eta Baztango abereak. XIII. mendean hartu zuen eremuak *Kintoa* izena, Nafarroako erregeek larre eta mendien ustiaketa- ren bostena eurentzat gordetzea agindu zutenean. Jabegoak liskarrerako bidea zabaltzen duen modu berean, jabego ezak bailara arteko borrorak piztu zituen.

1785. urtean sinatu zen Elizondoko Itunak abeltzainen arteko liskarrak konpontzea zuen xede. Goi larreak denek erabili zitzaizkion, eta horrez gain, norberak bere isurialdeko larreak ustiatzeko aukera izango zuen, Ornanoren lerroa izeneko banaketa lerroaren arabera. Liska-

rrak ez ziren bukatu eta Pirinioetako Ituna sinatu zen 1856an. Itun horren arabera, Ornanoren lerroak muga lerro izaten jarraitzen zuen arren, Erro eta Baztan haraneko biztanleen esku geratu zen Kintoaren jabetza, Baigorriko abeltzainek, urteko 8.000 urrezko liberaren truke, mugatik iparraldera kokaturiko larreak ustiatzeko aukera zutelarik. Denek izango zuten, halaber, hegoaldeko larreak ustiatzeko aukera, behenafarrek beste diru kopuru bat ordaindu behar bazuten ere.

Gaur egun 30 familia inguruk jarraitzen du baldintza hauetan bizitzen. Behenafarrak izan, baina hegoaldeko ogasunari ordaintzen dizkiote euren zergak. Bitxia.

